

ZAINDEGIKO BARNE ARAUDIA
2025-2026ko IKASTURTEA

(Zuen hurrekilan artoski irakurtzekoa, zerbitzu honen ibilera onarendako)

Herriko Etxeak du zaindegia kudeatzen.
Eskainia den zerbitzu bat da, ezin ez eta betebeharrak.

**Ezohiko egoeretan, Auzapez Andereak
zaindegiko ordutegia aldatzeko eskubidea du.
Zaindegiak lehentasuna ematen die buraso landunen hurrei.
Burasoei lan-frogagiri bat eska dakieke.**

1. artikulua: IZEN EMATEA

Arratseko zaindegirako izen-ematea hilabete guziz egitekoa da (hilabeteko 15a eta 25a artean) ondoko hilabetearentzat. Izen-ematea, hurrei banatua zaien edo burasoei e-mezuz igorria zaien fitxa baten bidez egiten da.

Horretarako, izen-emate fitxa ukaiteko moldea marka ezazu:

- Izen-ematea e-mezuz
 Izen-ematea hurrari eman fitxaren bidez

Zaindegiko izen-emate fitxa hau osatu eta hilabeteko 25ean eman behar zaie berantengatik ATSEM agenteei. Zerbitzua ahal bezain ontsa antolatzeko, burasoei adierazi beharko dute **ahal bezain xeheki zein tenoretan jinen diren haurraren xerka arratsean, eta tenore hori errespetatu. Izen-emate oro fakturatua izanen da.**

Haur batzuk zaindegian ibiltzen badira izenik eman gabe, burasoei oren-erdi bakoitzarendako pagatzen dutenaz **0,50 €**z gain, 15€ko prezio finkoa pagatu beharko dute. Halaber izanen da, **19:00etatik landa abiatuko direnendako**, eskolako ordutegia horren berme izanki.

Hilabete guziz faktura bat egina eta burasoei e-mezuz igorria da.
Horregatik, zure helbide elektronikoa ahal bezain molde irakurgarrian idatz ezazu otoi:

.....@.....

Herriko Etxeak bankuko diru-kentze automatikoa plantan ezarri duenez, fakturazioa hilabete guziz egiten da eta diru-kentzea ondoko hilabeteko 15ean iraganen da.

Ondorioz, banku biramendurik ez ezazula sor edo egin.

Ordainketa egina izan ez bada, Auzapez andereak haur bati jantegiko sarbidea errefusatzeko eskubidea du.

Herriko Etxea zuen eskuko egoten da edozein xehetasunen emateko.

2. Artikulua: FUNTZIONAMENDUA

Zaindegia herriko langileen ardurapean dabil, tenore hauetan:

- 07:30etik 08:35era, egun guziz;
- 16:15etik 19:00etara, egun guziz.
Oren erdiaren prezioa **0,50 €**-koa da; hasia den oren erdia zor da.

3. Artikulua: JITEA-JOATEA

Ama-eskolako haurrak zaindegiko korralera ekarri beharko dira goizetan, eta portalean hartu beharko dira arratsetan. Haurraren xerka jiteko edozein beranta edo ustekabea izanez gero, burasoek eskolara telefonoz deitu beharko dute. Haurra beren orde berreskuratuko duen pertsonaren izen-deiturak zehaztu beharko dituzte, eta honek, nortasun-agiria aurkeztu beharko du.

Haurra zaindegitik edo egoera berezietan (eskolaz kanpoko jarduerak barne) bakarrik atera daiteke, burasoek baimen idatzia eta sinatua eman behar diete ATSEMei, eta baimen horretan zehaztu beharko dituzte gertatuko denaren eguna, tenorea, egoera eta beharrez, haurraren berreskuratzera etorriko den pertsonaren izen-deiturak.

Familia bereko haurrek, tenore berean ateratu beharko dute haurtzaindegitik, **salbu ezinbesteko kasuan.**

Kasu horretan bakarrik, haurrek zaindegiaren abantaila ukanen dute, **orainokoa zaindegian molde erregularrean ibiltzea edo zaindegian ibiltzea ez baldin bada aitzinikusia ere.**

4. Artikulua: DIZIPLINA

Zaindegiaren ibilera ona bermatzeko eta estudio zaindua goxoki iragan dadin, diziplina arau batzuk errespetatu behar dira:

- langileak errespetatu,
- lagunak errespetatu,
- materiala errespetatu,
- ordutegiak errespetatu,

Sakelako telefonoak eta bideo-jokoak erabiltzea debekatua da.

5. artikulua: KRAKADA

Haurrek, orokorki, beren krakada jostalekuan edo aterpean jaten dute. Eskertzen zaituztegu, errazki jan daitezkeen kradadei lehentasuna ematea (fruitu moztuak ontzixka batean, konpotak edo esnekiak esku-botila batean...). Gainera, oroitarazten dizuegu krakadak pertsonalak direla eta, beraz, ezin direla partekatu edo trukatu, besteak beste, elikadura-alergien arriskuen gatik.

6. artikulua: ERANTZUKIZUNA

Zerbitzuko langileek ibilera onerako arau horiek bermatzen eta mantentzen dituzte.

Arazo bat gerta baledi eta honen larritasunaren arabera, langileek berehalako neurri egokia har dezakete edota Auzapez andereari horren berri eman diezaiokete.

Auzapez Andereak erabaki dezake burasoei arazo edo makurraren berri ematea (telefonoz, e-mailez edo kailerrean hitz bat idatziz) edo haiek deitzea. Arazo edo makurrak behin baino gehiagotan gertatuz gero, haurra zerbitzutik kanpora daiteke, aldi baterako edo behin betiko.

Ordainez, zaindegiari loturiko edozein galde edo ohar, zerbitzuko langileei edo Auzapez Andereari helaraztekoak dira.

7. artikulua: arretaz irakurtzekoa den araudi hau bi aleetan emana zaizue:

- bat atxikitzeko,
- bestea, burasoek sinatu eta 8 egun barne eskolara eramateko

BARDOZEN, (e)an



Auzapeza,

Maider BEHOTEGUY

<p>1. burasoaren izen-deiturak</p> <p>Sinadura</p>	<p>2. burasoaren izen-deiturak</p> <p>Sinadura</p>	<p>Haurr(ar)en izen-deiturak</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Haurr(ar)en sinadura(k)</p>
--	--	--